# NIRE AURRERAPENA 10

**1. Saioa 18:20an sartu zen zineman, eta filmak ordu 1 eta hiru laurden iraun zuen. Zer ordutan irten zen zinematik?**

A 19:40an.

B 19:55ean.

C 20:05ean.

D 20:10ean.

**2. Aireportuko informazio-paneletan, Londreseko hegaldia 22:12an iritsiko dela adierazten da. Horren arabera, zer ordutan lurreratuko da, gutxi gorabehera?**

A Hamarrak eta hamarrean.

B Hamaikak eta hamarrean.

C Hamarrak eta laurdenetan.

D Hamaikak eta laurdenetan.

**3. Erlojuak 11:37 adierazten zuen duela gutxi, eta orain, 11:46 adierazten du. Zenbat segundo igaro dira?**

A 480 segundo.

B 540 segundo.

C 630 segundo.

D 720 segundo.

**4. 6.750 segundo...**

A 1h, 52 min eta 30 s dira.

B 2 h, 2 min eta 15 s dira.

C 1 h, 58 min eta 10 s dira.

D 2 h, 15 min eta 20 s dira.

**5. $47^{o}$ 26' -ko angelu batek...**

A 2.820' ditu.

B 2.846' ditu.

C 2.882' ditu.

D 3.080' ditu.

LIVEWORKSHEETS

**6. Planeta bat 2.592.000" biratzen da ordu oro. Zenbat biratuko da egun oso batean?**

A 18.000°

B 1.032.000'

C 48 itzuli

D 39.360°

**7. Makina batek 160 pakete zigilatzen ditu 20 minututan. Zenbat denbora beharko du 880 pakete zigilatzeko?**

A 100 minutu.

B Ordu 1 eta erdi.

C 130 minutu.

D Ordu 1 eta 50 minutu.

**8. Angelu kamuts batek ...**

A 90° baino gutxiago ditu.

B 180° gradu baino gehiago ditu.

C 90° baino gehiago ditu.

D 180° ditu.

**9. Bi angelu auzokideak badira, ...**

A alde komun bat dute, baina erpina ez.

B ez dira ondoz ondokoak.

C haien batura 180° da beti.

D haien aldeak zuzen berean daude.

**10. Erpinez aurkako bi angelutatik bat kamutsa bada, nolakoa izango da bestea?**

A Zorrotza.

B Kamutsa.

C Ondoz ondokoa.

D Auzokidea.

LIVEWORKSHEETS